

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **4/2019 Mozioa, urtarrilaren 23koa, sute-arriskuari buruz eta horren inguruan hartu beharreko neurriei buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urtarrilaren 23an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

4/2019 Mozioa, urtarrilaren 23koa, sute-arriskuari buruz eta horren inguruan hartu beharreko neurriei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, tokiko entitateekin lankidetzan arituz, mendi publikoen inbentarioa egin dezala, eta bertan zehaztu dezala euren kontserbazio-egoera, mantentzea eta erregarritasun-ereduak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, tokiko entitateekin lankidetzan arituz, txosten bat egin dezala mendietatik hurbil dauden eraikuntzetan izan litekeen sute-arriskuari buruz eta arrisku hori ahal den neurrian deusezteko hartu beharreko neurriei buruz.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan arituz, abian jarri ditzatela suteak eragin ditzaketan lander-soberakinak gutxitzeko neurriak; neurriok kontuan izan beharko dituzte mendiaren titularrak diren tokiko entitateak eta lehen sektorea.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote sustatu dezala Arabako mendietatik datorren biomasaren erabilera Arabako landa-inguruneke eskualdeetan enplegua eta populazioa sortzeko ardatz gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 23a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**